

Erlatiboa:

01.- Azken bolada honetan, uste hau jabetu da ikertzaileen artean: gizakia barazkijalea zen hasieran. (95-5-20)

_____ustea
_____honetan.

02.- Eztenak berak kezkatzen eta amorrarazten ninduen, baina, are gehiago burutazio zorrotz batek. (94-10-10)

_____ninduena.

03.- Gizajo hori! Erregeak aita eta ama direla uste al duzu? (94-6-9)

_____ustean
_____.

04.- Aurten adiskideek ez didate oparirik ekarri; nahigabeak ekarri dizkidate. (94-5-7)

_____...nak
_____baino.

05.- Institutoko zuzendariak azaldu dien asmoa aho batez onartu dute ikasle guztiek. (94-5-7)

Ez dago _____...tako _____
_____.

06.- Auzokide guztiek jakingo dute guk atzo etxean egindakoa. (94-4-30)

Ez _____
_____...nik.

07.- Gizon hau da beste hura okerbidera eraman zuena. (93-9-23)

Gizon honek _____.

08.- Iaz bere lankideekin hartu zuen jarrera bere buruaren kalterako izan zela iruditzen zait. (93-9-23)

_____nago.

09.- Lapurreta horren autoretzaz esaten dena egia dela uste dugu, baina ziurtasun oso-osorik ez daukagu. (92-5-16)

_____delako
_____.

10.- Delako teoria horren kontra bi arrazoi entzun eta irakurri ditudala uste dut. (93-6-10)

.....koan
.....

11.- Guatemala da, kontinente hartan zapalkuntzarik handiena jasaten ari dena. (93-6-16)

..... ari da

12.- Baina zure hitza lur elkorrean jausten den hasia ote? Horren beldur naiz. (92-10-6)

..... ez

Erlatiboa:

01.-Azken bolada honetan, uste hau jabetu da ikertzaileen artean: gizakia barazkijalea zen hasieran.

(95-5-20)

Hasieran gizakia barazkijalea izan zelako / zen ustea jabetu da ikertzaileen artean azken bolada honetan.

02.- Eztenak berak kezkatzen eta amorrarazten ninduen, bai, are gehiago burutazio zorrotz batek.

(94-10-10)

Eztena bera baino burutazio zorrotzago bat zen gehien kezkatzen eta amorrarazten ninduen.

03.- Gizajo hori! Erregeak aita eta ama direla uste al duzu? (94-6-9)

Gizajo hori! Erregeak aita eta ama direlakoan zaude?

04.- Aurten adiskideek ez didate oparirik ekarri; nahigabeak ekarri dizkidate. (94-5-7)

Aurten adiskideek ekarri dizkidatenak ez dira opariak izan, nahigabeak baino.

05.- Institutoko zuzendariak azaldu dien asmoa aho batez onartu dute ikasle guztiek. (94-5-7)

Ez dago Institutoko zuzendariak azalduko asmoa onartu ez duen ikaslerik.

Ez dago ikaslerik Institutoko zuzendariak azalduko asmoa onartuko ez duenik.

06.- Auzokide guztiek jakingo dute guk atzo etxean egindakoa. (94-4-30)

Ez da egongo auzokiderik guk atzo etxean egindakoa jakingo ez duenik / ez dakienik.

07.- Gizon hau da beste hura okerbidera eraman zuena. (93-9-23)

Gizon honek beste hura okerbidera eraman zuen.

08.- Iaz bere lankideekin hartu zuen jarrera bere buruaren kalterako izan zela iruditzen zait.

(93-9-23)

Iaz bere lankideekin hartu zuen jarrera bere buruaren kalterako izan zelakoan nago.

09.- Lapurreta horren autoretzaz esaten dena egia dela uste dugu, baina ziurtasun oso-osorik ez daukagu.

(92-5-16)

Lapurreta horren autoretzaz esaten dena egia delako ziurtasun oso-osorik ez daukagu.

10.- Delako teoria horren kontra bi arrazoi entzun eta irakurri ditudala uste dut. (93-6-10)

Delako teoria horren kontra bi arrazoi entzun eta irakurri ditudalak^oan nago.

11.- Guatemala da, kontinente hartan zapalkuntzarik handiena jasaten ari dena. (93-6-16)

Guatemala ari da kontinente hartan zapalkuntzarik handiena jasaten.

12.- Baina zure hitza lur elkorrean jausten den hasia ote? Horren beldur naiz. (92-10-6)

Baina zure hitza lur elkorrean jausten den hasia ez ote den beldur naiz.

Beldur naiz zure hitza ez ote den lur elkorrean jausten den hasia.